

Espediente moetea: Administrazio kontratazioa

Kontratuak: Kontratu administratibo berezia, prozedura irekia.

Espediente zenbakia: ZE10-IV-06

Erref: plegu_tek_bermibus-2016_bhbt

**BERMEOKO HIRIBUSA (BERMIBUSA) UDAL-GARRAIO
ZERBITZUA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO
BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIAK**

I.- KONTRATUAREN EDUKINA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Bermeoko hirubusaren (Bermibus) udal-garraio publikoko zerbitzua ematea oinarrian duen administrazio kontratua gauzatzea. Kontratuak administrazio kontratu berezi izaera dauka eta izaera horrek Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 19.1.b) artikuluan xedatutakoa dauka oinarri.

2.- HIRIBUSEN EZAUGARRI TEKNIKOAK:

Zerbitzua emoteko erabiliko diran ibilgailuak, hiribusak izango dira eta, gitxienez, ezaugarri tekniko honek bete beharko dabez:

- ✓ 24 jazarleku izango dauz gitxienez eta, zutik joateko beste 32 pertsonentzako lekua izango dau gitxienez.
- ✓ Zerbitzuaren ezaugarria kontutan eukita, hau da, erabiltzaileak ambulatiora garraiatzeko hiribus baten aurrean gagozala kontuta eukita, minusbaliatuen aulki bietarako lekua izango dau gitxienez.
- ✓ Era berean, elbarrituen aulkiak igotzeko plataforma igotzailea eukiko dau.
- ✓ Bermeoko herriaren orografia eta kaleen zabalera kontutan eukita, zerbitzu hau emoteko jarriko dan ibilgailuak, neurri honek izango dauz gehienez: 9,5 metroko luzera, 2,5 metroko zabalera eta 3,5 metrotako altuera.
- ✓ Bestelako ezaugarriak: aire egokitua eduki beharko dau ibilgailuak.
- ✓ Ibilgailuak, Bermeoko Udaleko irudi korporatiboa eduki beharko dau margoztuta eta, BERMIBUSA hitza eukiko dau margoztuta, erraz irakurtzeko moduan eta, erabiltzaileek, ibilgailua argi desbardintzeko moduan. Diseinuak Bermeoko Udalaren oniritzia izan beharko dau.
- ✓ Euro5 motorra

Ibilgailuaren ezaugarriak, dagokion atalean baloratzeko ahal izateko, plegu administratiboaren IX. eranskinean zehaztu beharko dira.

3.- ZERBITZUAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK:

- ✓ Ibilgailuak, telefono mugikor bidez lokalizatzeko sistema eduki beharko dau ezarrita.
- ✓ Administrazio-baldintza agirian aitatutako aseguru poliza eduki beharko dau kontratauta, uneoro, esleipendunak.
- ✓ Esleipendunak, erabiltzaileen arretarako Bermeon bulego bat zabaldu beharko dau eta bulego horren ordutegia, honakoa izango da gitxienez: asteleheneetik barikura, 9:30etatik 13:30etara.
- ✓ Zerbitzua emoten dauan ibilgailua matxuratzen bada, zerbitzuaren garrantzia kontutan eukita, esleipendunak, 15 minutuko epean, esleipendunak beste ibilgailu bat jarri beharko dau, matxurak irauten dauan bitartean zerbitzu hori emoteko, nahiz eta ibilgailu horrek, aurreko atalean finkatutako ezaugarri tekniko guztiak ez bete.

4.- IBILBIDEA ETA GELTOKIAK:

Hiribusaren (Bermibusaren) ibilbidea eta geltokiak, honakoak izango dira:

Ibilbidea	Geltokiak
Lamera (urteera).	Lamerako autobus geltokia
Santamañe kalea	
Txibitxiaga kalea	Txibitxiaga kalea 24
Askatasun bidea.	Erribera enparantza
	San Andreseko geltokia
Erreñezubi kalea.	
Ondarraburu kalea.	Nardiz tar Gonzalo enparantza
Dibio kalea	
Mikel deuna bidea	
Adubidxe kalea	Jolasgunean
Mikel deuna bidea	Mikel deuna bidea 3
Artieda tar Iñigo kalea.	
Zubiaur tar Kepa kalea.	Azokako autobus geltokia
Landabaso A /Egoitz Alai egoitza	Gasolindegia ondoan (* <i>Ordu hauetan bakarrik</i> 11:00/12:30/17:30/19:30
Ibarreta kalea	
Martin Deuna / Zubiaur tar Kepa kalea	Bizkaiko Jaurerria 39
Bizkaiko Jaurerria kalea.	Bizkaiko Jaurerria 1
Arresi kalea	San Juan Portale

Tonpoi bidea	
Talako Andra Mari Auzoa	Talako geltokia
Benito Barrueta	Haur eskolako geltokia
Matxixako bidea	Hilerriko geltokia
Arene auzoa	Aritzatxuko geltokia
Atalde kalea	Kiroldegiko geltokia
Aritzatxu bidea	Atalde kalea 19
Zubiaur tar kepa kalea.	Azokako autobus geltokia (aurrean)
Ispizua tar Segundo kalea	
Prantzisko deuna atea	
Lamera (amaiera)	Lamerako autobus geltokia

Udalak eskatuta, enpresak aztertu beharko du ibilbideen aldaketa edota geralekuena. Posiblea izango da geraleku gehiago nahiz gutxiago egin behar izatea.

Behar diren azterketen ondoren eta Bermeoko Udalak behar den tramitazioa burutu ondoren, enpresak aplikatu beharko dira aipatutako aldaketa oro.

5.- EGUTEGI ETA ORDUTEGIA:

Bermibusaren zerbitzua, lan egunetan emongo da, astelehenetik zapatara (jai egunak izan ezik).

Lehenengoko Bermibusa, goizean 7:45etan urtengo dau Lameratik eta, azkena, 14:15etan. Arratsaldean 16:45etan lehenengokoa eta 19:15 azkena.

Zapatuetan lehenengoko Bermibusa 8:15etan urtengo dau Lameratik eta azkena 13:15etan.

Orduerdi urtengo dira Lameratik Bermibusak, laurden gitxiagotan eta laurdenetan zehazki.

Udalak egokitzat ematen badu ordutegi aldaketaren bat, hauxe onartu beharko da enpresaren aldetik, horrek ez badu eragiten lanegunetan ematen den zerbitzuaren iraupenaren handitzerik.

Udalaren aldetik, esleipendunari, beti ere, kontratuaren prezioaren %10 gaitutuko ez balitz, beharizan berriak sortuz gero, bidai bereziak edo osagarriak eskatu ditzake (kontratutik kanpo ordainduko lirateke).

6.- TARIFA:

Tasa ordaintzeko era bi dagoz: Udal txartelaren bidez edo diruz autobusean bertan.

Tasaren tributuzko kuotak Bermeoko uri-busaren (Bermibusa) zerbitzu publikoaren tasa arautzen dauan ordenantza fiskalean agertzen diranak izango dira.

Tasa ordaintzeko salbuetsita egongo dira 4 urtera arteko haurrak

Tarifaren ondorioz lortzen diran diru sarrerak, Bermeoko Udalarentzat izango dira. Hori horrela, esleipendunak, hilerro, sarrera horreek, Bermeoko Udalak finkatutako kontu zenbakian ingresatu beharko dauz, hilaren 5a baino arinago eta, era berean diru sarreraren idatzizko justifikazioa aurkeztu beharko dau.

7.- TXARTELAK

Autobusak kontakturik gabeko txartel irakurlea eduki beharko du. Irakurle honek hurrengo ezaugarriak eduki beharko ditu:

- ✓ Kontakturik gabeko ISO 14443 A eta B motatako prozesadorea
- ✓ Kontakturik gabeko txip indargabetzaile barne instalakuntza egiteko aukera izatea
- ✓ Inprimagailua
- ✓ GPS barne instalakuntza egiteko aukera izatea
- ✓ Erlojua
- ✓ Informazioa deskargatzeko barne instalazioa

Erabiliko diren txartelen ezaugarriak hauek izango dira:

- ✓ PVC materiala
- ✓ Kontaktu barik makinak irakurtzekoa
- ✓ Zenbatuak
- ✓ Anonimoak
- ✓ Aplikagarria dan tarifaren erakusgarri izateko kolore ezberdinekoa
 - Orokorra eta langabetuena – urdina
 - Jubilatuenena – gorria

8.- ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK:

Esleipendunak besteak beste, honako betebeharrak izango dauz:

- ✓ Zerbitzua, kontratua arautzen daben baldintza pleguetan finkatutako baldintzak zehatz betetuz emon.
- ✓ Zerbitzua, finkatutako egutegi eta ordutegiaren arabera emongo da eta, esleipendunaren kontura izango dira, zerbitzua emoteko beharrezko gastuak ordaintzea, hala nola, ibilgailuaren mantenimentu gastuak, erregaia, aseguru polizaren gastua, errebisino gastuak, e.a.
- ✓ Zerbitzua emoteko beharrezko langileak eduki beharko dauz esleipendunak eta, langile horreekiko, lan arloko, Gizarte segurantza eta lan arrisku eta osasun arloko legedia bete beharko dau zehatz.
- ✓ Zerbitzua era egokian emoten dala ikuskatu beharko dau uneoro.

- ✓ Ibilgailuak era egokian mantenduko dauz, zerbitzuaren eta erabiltzaileen segurtasuna bermatuz une danatan. Horretarako, legediak ezartzen dauzan neurri eta ikuskapenak bete beharko dauz.
- ✓ Baldintzak betetzen dabezan erabiltzaile danak onartu zerbitzuaren emotean, hurrengoko atalean finkatuko danaren arabera.

9.- ERABILTZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK:

Edonork erabili ahal izango dau Bermibusa, beti be, baldintza honeek betetzen badauz:

- ✓ Sarrerako atetik sartu eta, urteerako atetik urten, gidariak kontrakoa adierazoten ez dauan bitartean.
- ✓ Ezingo dauz beste erabiltzaileen kopurua murriztu edo oztopatzen dabezan elementuak igo ibilgailura, beti ere, derrigorrezkoak ez badira, hala nola, umeen siletak edo kotxetxoak, e.a.
- ✓ Mugikortasun murriztuko pertsonak, adinekoak, haurdun emakumeak edota haurtxoekaz horretarako jarritako tokiak erabili ahal daikie
- ✓ Ezingo dira animaliak igo, itsua dan pertsona bateri laguntzeko beharrezko ez bada.
- ✓ Ezingo dira sustantzia arriskutsu eta osasungaitzak igo ibilgailura.
- ✓ Erabiltzaileak onartutako tarifa ordaindu beharko dau ibilgailura igo eta segituan.
- ✓ Lau urtetik beherako umeek ez dabe tarifarik ordainduko.
- ✓ Ezingo da ibilgailu barruan erre.
- ✓ Beharrezkoak ez diran edozelako zaratarik ezingo da egin.
- ✓ Ezingo da gidariekaz berba egin, ibilgailua martxan dagoen bitartean.
- ✓ Ezingo dira zaborrak bota.
- ✓ Ezingo da ibilgailu barruan jan edo edan.
- ✓ Orokorrean, erabiltzaileen lasaitasuna eta ibilgailuaren txukuntasuna oztopatzen daben edozelako egintzak debekatuta egongo dira.

Erabiltzailearen batek, ezarritako baldintza honeek betetzen ez badauz, Bermibusetik bajatzeko agindua emon ahal izango jako eta, eragozpenik jarriko baleu, Udaltzaingoa laguntza eskuratu ahal izango dau gidariak.

10.- HIZKUNTZA ERISPIDEAK.-

- ✓ Zerbitzua emoteko jarriko dan ibilgailuan, bai kanpoko aldean, zein barrukoan hizkuntza paisajea euskeraz egongo da: ibilgailuan ipiniko dan informazio idatzi guztia, hau da, errotuluak, mezuak, oharrak... euskeraz ipiniko dira. Inoizkotan publizidaderik edo antzekorik ipiniko balitz, euskeraz ipiniko litzateke. Eta ahoz mezuak emoten diranean, euskeraz emongo dira.
- ✓ Adjudikatariak zerbitzua emoteko ipiniko dauzan langileak euskaldunak izango dira, eta ez dabe ezalako arazorik izango Bermeoko herritarrakaz euskeraz komunikatzeko. Langile horreek zerbitzua emoten dauzanean,

herritarrakazko izango daben jokaerea eta lehenengo berbea euskeraz izango dira.

- ✓ Adjudikatariak Bermeon ipiniko dauen erabiltzaileen arretarako bulegoan egongo diran langileak euskaldunak izango dira, eta ez dabe ezelako arazorik izango Bermeoko herritarrekaz euskeraz komunikatzeko. Langile horreek zerbitzua emoten dauzanean, herritarrakazko jokaerea eta lehenengo berbea euskeraz izango dira.
- ✓ Bermeoko Euskerearen Udal Ordenantzeak agintzen dauanaren arabera, ezinbesteko kasuetan euskerea eta gaztelania erabili ahal izango dira, beti be euskereari lehentasun osoa emonda.
- ✓ Udaleko Euskera Sailaren laguntza teknikoa izan leike adjudikatariak zerbitzua euskeraz bermatu ahal izateko baliabideak behar dauzanean.

11.- ESLEIPEN ERISPIDEAK.-

Kontratazino honen esleipen erispideak, baldintza plegu administratiboen 16. artikuluan adierazten direnak izango dira.

12.- ZERBITZUAREN KUDEAKETAREN BATZORDEA.-

Zerbitzuaren kudeaketa egokiak horrela eskatuko baleu, Bermeoko Udalak, jarraipeneko batzorde bat sortu ahal izango dau, zeinetan Udalaren eta esleipendun enpresaren ordezkari eta teknikariek hartu ahal izango daben parte.

13.- URRATZEAK ETA ZEHAPENAK.-

Pleguetan eta kontratuetan jasotako betebeharretariko bat ez beteteak zehapena erakarriko dau.

Honako jardute honeek zehazteko modukoak izango dira:

1. Zerbitzuek geldiarazotea edo astebete baino gehiagotan etetea, ezinbestekoa danean izan ezik.
2. Salatzea edo aparteko nahiz premiazko jarduna behar dauen egoerea jakinarazo eta gero, berehalako eskuhartzerik ez egotea.
3. Zerbitzuak txarto edo modu irregularrean emotea, jendeak, lan egiten daben profesionalek edo udalak egindako ikuskapenek hori salatzen dabenean.
4. Ordutegiak ez betetea, modu sistematikoan eta, matxurak dagozanean, ordezeko ibilgailu bat jartzeko epeak modu sistematikoan apurtzea.
5. Ibilgailua, segurtasun baldintzatan ez eukitzea eta, legediak ezartzen dauzan baldintza eta ikuskapenak ez betetzea.

6. Bermeoko Udalak emondako aginduak ez betetea.

8. Plegu honetan ezarritako baldintzak eta epeak ez betetea, horreek kaltegarriak badira Plegu honetan ezarritako baldintzetarako edo zerbitzuaren kalidaderako.

Zehapenak

Kasu bakoitzean urratzea egin ondoren, Udalak lehenengo abisua emongo deutso emakidunari eta goian aitaturako urratzeak ez badira zuzentzen edota, urratzeak zerbitzuaren kalitatea nabarmenki kaltetzea ekartzen badaben, 300 € arteko isuna aplikatuko edo kontratua eteteko erabagiak hartu ahal izango dira .

14.- KONTRATUAREN ETA AZPIKONTRATUAREN LAGAPENA.-

Kontratuaren ezaugarriak dirala eta, kontratu honen exekuzinoan ezingo da azpikontraturik edo kontratuaren lagapenik egin.

Bermeon, 2016ko maiatzean